


# ≈ Hitzordu ≈

Adur, adur ez nauk hire beldur

ITZIAR ZUBIZARRETA



**E**saera zaharraren leloak burutzen du egitasmo hau; Beldurraren Aretoarena, hain zuzen. Izan ere, izena eman dio ikuskizun antolatu dugun aretoari, eta haren bidez ematen zaie adioa aretora inguratzen den jendeari. Ikasturte honetan Gipuzkoan barrena dabil, geroan ere ibilaldi luzea opa diogu gainerako lurraldeetan; partaideak kilikatzeke, irakurzaletasuna pizteke; eta bihotzean, noiz edo noiz, atximurka txiki batzuk eginez, haur literaturaz gozatzeko. Galtzagorri Elkarteak antolatu du areto hau, eta bertan literatur jolas baten aukera eskaintzen zaie zortzi urtetik gorako haurrei.

## **Beldurra ez da izua**

Ez dago gure asmotan inor ikaratzea, inola ere ez. Aretoaren nahia da parte hartzaileek beren beldur txikiak identifikatu, eta haiek begi-bistan jartzea, manipulatu eta kokatzeko. Horretarako jolas bat sortu da, ustez aproposa, eta aretora inguratzen denak jolas horretan parte hartzeko gonbitea du. Jolasa da aretoaren mintzaira, jolasen bidez bilatuko dituzte partaideek irakurgai proposatzen dizkiegun liburuak; sentsazioz sentsazio, txoko guztiak miatu



beharko dituzte, eta aukerako liburuetan aurkitu, agian, haien beldurrak uxatzeko, adierazteko, edota urruntzeko parada.

Beldurra gizakiaren ezinbesteko bidelagun bat da; haurtzaroan asaldadura ikaragarriak sentitzen badira ere, geroan aldatuz doaz beldurraren adierazpenak. Forma berriak hartzen dituzte hauek; txikitan mamuz eta ezintasunez irudikatzen dena, larridura, izerdia eta dardara bilakatzen da hazten garen adinean. Heltzen garenean, zenbaitetan beldurrek geldiarazten gaituzte, eta beste zenbaitetan arazoak gainditzera bultzatzen gaituzte, baina sekula ez dira desagertzen.

Aretoaren aurkezpenean, beldur txikien itxuraldaketa irudikatu nahi izan dugu; izan ere, oso desberdina da izuaren menpe bizi izatea, itsu egoera berrien aurrean, edota zuhur jokatzea eta, distantziaz, arazoei aurre egitea. Mezu hau dago gure abiapuntuan; ez dugu, beraz, beldurra ukatzen; aitzitik parte hartzaileen beldur txiki horiek lehenengo lerrora ekarri, eta haiekin jokatzea proposatzen diegu, ikararekiko distantzia hartuz.



### Beldurraren ibilbidea

Zirrara bat dago beldurraren oinarrian, gure zentzumenak kilikatzen dituen: egoera ezezagun batek, ezuste batek, gure buruarekiko konfidantza galarazi eta harrিতта uzten gaituena. Pentsakerak hartzen du ondoren parte, zer ote da?, bakarrik geldituko ote naiz?, hilko al naiz? Hala moduzko zalantza andana bidaltzen digu pentsakerak izutzen garenean. Baina bide bitxiak erabiltzen ditu gure buruak zirrara hauek irudikatzen; arrazoitu ezin eta amets eta delirioen bidez sinbolizatzen ditu gure ezinak. Mamuak, otsoak, txirrista amaigabeak sortzen ditu gure irudimenak, eta hauei forma ematen die gure fantasiak.

Irudi sinboliko hauek ametsetan agertzen dira batik bat; baina horien aurretiko asaldadurak noiznahi azaltzen zaizkigu: kale ilun batean, leku malapartatu batean, arriskueta, eta norberak dakien guztietan. Eta, kasuan kasu, gure fantasiarik bihurrienak agertzen zaizkigu halakoetan. Zenbaitetan gainditu egiten ditugu, beste zenbaitetan gaixotu egiten gaituzte. Baina ezin ditugu bazter batera utzi, gurekin batera bizi dira, ezinbesteko lagun ditugu: orriaren infrentzua, bizitza eta heriotza.

Tradiziozko haur ipuinetan, ikasbide nagusienetako bat honako hau da: ikara gainditu eta beldurrarekin batera bizi ahal izateko ibilbidea. Eta, esan beharrik ez dago, ipuingintzari heldu diogula Beldurraren Aretoaren zera gauzatzeko.

### Aretoan barrena

Aretoan sartuko den edozeinek sukalde bat ikusiko du, «post-it»-ez bete. Mahaiaren gainean, bakaneko zamau mordo bat; bertan irudikatzen



## ≈ Hitzordu ≈

da aretoaren ibilbidea, eta jolasean parte hartzeko aukera. Haren iradokizunei jarraituko diegu, eta sukaldearen bazter batean, DVD irakurle bat egongo da. Piztu eta Jonasen Beldurra ikusteko aukera izango dugu.

Jonas txikia lehenengoz geratu da etxean bakarrik. Amak esan dio olioia erosi eta salto batean etorriko dela etxera berriz. Baina Jonas txikiarentzat luzegeia suertatu da bost minutuko salto hori. Bere bihotzeko taupadek, etengabe, errepikatzen baitiote bakar-bakarrik dagoela. Etxeko soinu txikiak ozen eta ahots goraz gogoratu diote bakarrik dagoela. Dardarez dago Jonas, dar-dar, sukaldeko tresnak; hozkailua ere dardarez dago; otsoa dago bertan...

Jonas txikiaren beldurra erraz ulertzen dute 8-9 urteko haurrek, ez dituzte urruti Jonasen beldurraren antzeko ikarak, gogoan dituzte, eta hainbatek oso biziki sentitzen dituzte oraindik orain; honako hau aho txikiarekin adierazten badute ere. Baina aurrerapen bat egin dute gazetxoago zirenekiko: hau da, Jonasen irudikapenaz jabetu dira; Jonasen beldurra kitzikatzen duen aitzakia, eta haren erantzunaren artean, tarte handiegia dago. Arrazoez kanpokoa da Jonasen erantzuna, noski; hala ere desproporzio hori ez dago beren eguneroko bizipenetatik hain urruti, ulertu egiten dute, bat egiten dute Jonasen sentiberatasunarekin.. Ametsgaiztoak dituzte zenbaitetan, eta ikara asko eta asko bizi dituzte gordin-gordinean. Abandonoa, galera, bakardadea, heriotza, eta antzeko kontzeptoek betetzen dituzte haien imajinarioak, eta Jonas txikiaren ikararekin bat egiten dute, denok egiten dugu.

Ondorengo jolas proposamen guztia, beraz, desproporzio horretan oinarrituko da, eta ikusleek sukaldearen barneko ibilbide bati emango diote hasiera. Elektrogailu bakoitzak beldur txikiak eta fobiak pizten dituzten elementoz beterik daude, aurreko aldetik. Zentzumenak kilikatzen dituzte elektrogailu hauetan aurkitzen dituzten gauzak. Hozkailuak janariaren artean, nazkagarriak edota arriskugarriak suerta daitezkeen gauzak gordetzen ditu. Zer ez duzu inola ere jango? Halako galdera agertzen da jokoan barrena eramango dituen zamau-gidan. Aukeratu egingo dute nazka gehiena sortzen dien «janaria», eta horrek etiketa bat izango du. Hozkailuaren atzeko aldean, hainbat liburu izango ditu irakurgai. Liburu horietan aurkitu beharko dute etiketa berdina. Agian, hozkailuan gauza nazkagarri bat aukeratu duenean, eta liburu ikusi edota irakurri duenean, gogoan hartu ditu beldurra sortzen dizkion izakerak edota egoerak. Horiek idaztea eskatzen diegu gure ikusleari bere zamau-gida horretan.

Jolas eskema hau errepikatuko da elektrogailuz elektrogailu. Hala nola, labeak poltsa luze batzuk gordetzen ditu; partaideek eskua sartu beharko dute horietan. Zer ote dagoen horien hondoan? Higuina sor dezaketen gauzak aurkituko ditu bisitariak, aukeratu ondoren, liburuak







ikusiko ditu; azkenean, higuina sortzen dion zerbait marraztu beharko du bere zamauean. Garbigailuak, berriz, soinu harrigarriak gordetzen ditu CD batean. Soinu asaldagarriak. Leku bat nahiz egoera bat irudikatzea eskatzen diogu eta egoera hori gidan idaztea. Sukaldeko harraska, azkenik, irudi ikaragarriaz betea dago. Bat aukeratu, liburuen buelta egin, eta bere amesgaizto ankerrena marraztea proposatzen diogu, ibilaldiari bukaera emateko.

Gaztetxoan beldurrak aztertzeo parada eskaintzen digu areto honek. Izan ere, zenbaitetan zamauak bertan uzten dituzte, eta batez ere, aretoaren bukaeran, paper handi batean idazteko aukera eskaintzen zaielako. Munstro ikaragarriak, zenbaitetan filme ezagunetako pertsonaia jakinak, buruhezur, labankadak, sakamantekasen ordeaz. Superficie handiak, garajeak, autobideak gehitzen zaizkie gure tradiziozko imajinarioari; otsoa, basoa, mendia okupatzen zuten lekua hartuz. Amesgaiztoak beti errepikatzen dira.

### **Aretoarekin batera**

Liburu-katalogo txiki bat eskaintzen diegu bisitariari; bertan beldurra gaiaren inguruan, euskaraz aurkitu ditugun liburuen berri ematen dugu, adinez adin sailkatuak.

Liburutegiz liburutegi ibiltzea da gure aretoaren patua, edozeinentzat ikusgai; baina herri bakoitzean, eskoletako haurren bisitaldi gidatuak eskaintzen dira. Animatezaile batek eramaten ditu ikasleak pausoz pauso aretoan barrena, Ane Berasategik, hain zuzen.

Guraso eta irakasleentzat parte hartzeko aukera berezia dago. Juan Carlos Alonsok ikastaro bat eskaintzen du, haur txikien beldurrak mahai gainean jarri, hauek nola aztertu, eta ipuinen bidez, beldur hauek gainditzeko pautak eskaintzen ditu.

Rai Bueno ere partaide dugu. Aretoarentzat ipuin kontaketa propio bat sortu du, beldur txikiak haizeatzeko. Emanaldi irekiak dira 6-7 urtetik gorako entzuleentzat.

Marrazki bizidun ikuskizun bat; hamar minutuko luzeera du emanaldiak. Bertan Jonas eta Hozkailu Beldurtiaren bertsio bat eskaintzen da. Ipuina Juan Kruz Igerabiderena da, eta haren bertsioa Itziar Zubizarretarena. Musika Zuriñe F. Gerenabarrenak egina; jotzaileak: Eusebio Díez, Raul Jiménez, eta Elena Martínez de Murgía. Jonasen irudia Mikel Valverderena, irudigilea Aitziber Alonso, eta Jonas eta gainerako pertsonaien ahotsa: Ane Berasategi, Miren Agur Meabe, Jorge Giménez, Gerardo Markuleta, Iñaki Martiarena, eta Itziar Zubizarreta; denentzat gure eskerrik beroenak.

